



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko abuztuaren 6a

85. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, 2015etik aurrera hizkuntza eskakizuna jarri zaien Nafarroako Administrazio Publikoko lanpostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, merkatarien elkarteentzako laguntzei eta dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Petilla Aragoiko osasun egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, eten digitalaren arazoa konpontzeko aurreikuspenari eta epeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, kulturaren eta kirolaren sektoreko autonomoentzako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, NICDO enpresari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko. Lanpostuen adjudikazioa eta izendapen proposamena (9. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

- 7/2020 Foru Lege-dekretua, uztailaren 22koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren. Osoko Bilkurak baliozkotu du (10. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, 2015etik aurrera hizkuntza eskakizuna jarri zaien Nafarroako Administrazio Publikoko lanpostuei buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2015etik aurrera hizkuntza eskakizuna jarri zaien Nafarroako Administrazio Publikoko lanpostuei buruzkoa. Galdera 2020ko otsailaren 28ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak PES-00033 idatzizko galdera egin du, zeinean honako informazio batzuk eskatzen baitzizkio Nafarroako Gobernuari. Hona hemen erantzuna:

Administrazio publikoko zein lanposturi jarri zaie hizkuntza eskakizuna 2015etik orain arte?

PES-00033 planaren bidez, informazioa eskatzen da 2015etik gaur egun arte hizkuntza-eskakizuna jaso duten plazei buruz. Horri dagokionez, adierazi behar da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa onesten duen uztailaren 27ko 100/2005 Foru Dekretuaren 2. artikulua 1. apartatuak ezartzen duela urtero argitaratuko dela, egituraren arabera. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakundeetan izendapen askeko zuzendaritzakarguak betetzen dituzten funtzionarioen, lan-kontratuko langile finkoen, estatutupeko langileen eta behin-behineko langileen zerrenda organikoa eta dagokion urteko abenduaren 31ko egoera. Hala ere, foru dekretu horren xedapen gehigarri bakkarak ezartzen du urtero argitaratuko direla, dagokion urteko abenduaren 31ko egoeraren arabera,

Nafarroako Foru Komunitatera transferitutako Justizia Administrazioeko zerbitzuei atxikitako langileen zerrenda eta plantilla organikoa. Plazen hizkuntza-eskakizunaren baldintzak aipatutako plantilla organikoan jasota daude.

Nafarroako Aldizkari Ofizialaren estekak erantsi dira, eta, bertan, 2015., 2016., 2017., 2018. eta 2019. urteetako bakoitzean abenduaren 31n zeuden hizkuntza-eskakizuna duten plazen zerrenda agertzen da.

– 2016ko plantilla- Ekainaren 24ko 126/2016 Foru Agindua - 134. NAO (2016-07-12)

<https://bon.navarra.es/eu/buletina/-/sumario/2016/134>

– 2016ko plantilla- Uztailaren 3ko 103/2017 Foru Agindua - 149. NAO (2017-08-03)

<https://bon.navarra.es/eu/buletina/-/sumario/2017/149>

– 2017ko plantilla- Maiatzaren 18ko 61/2018 Foru Agindua - 116. NAO (2018-06-18)

<https://bon.navarra.es/eu/buletina/-/sumario/2018/116>

– 2018ko plantilla- Uztailaren 2ko 88/2019 Foru Agindua - 114. NAO (2019-07-23)

<https://bon.navarra.es/eu/buletina/-/sumario/2019/142>

(Akats-zuzenketa, 221. NAO (2019-11-08))

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2019/221/0>

– 2019ko plantilla - Maiatzaren 7ko 57/2020 Foru Agindua - 105. NAO (2020-05-19)

<https://bon.navarra.es/eu/buletina/-/sumario/2020/105>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko ekainaren 16an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, merkatarien elkarreentzako laguntzei eta dirulaguntzei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, merkatarien elkarreentzako laguntzei eta dirulaguntzei buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Merkatarien elkarreentzako laguntzei eta dirulaguntzei buruz (10-20/PES-00076). Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak informatu beharrekoa:

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiko Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzua da Turismo, Merkataritza eta Artisautzako Diru-laguntzen Plan Estrategikoko neurriak betearazteko ardura duena.

Merkataritzarako laguntzei dagokienez, eta, zehazkiago, merkataritza-elkarte eta -kolektiboen jarduerarako laguntzei dagokienez, urtero argitaratzen da “merkataritza-kolektiboak sustatu eta kudeatzeko dirulaguntzen” deialdia.

Deialdi horrek diruz lagundu daitezkeen konzeptu hauek jasotzen ditu azken urteotan:

1) Merkataritza elkarten egiturak sustatzeko programak:

- a) Elkartutako enpresa txiki eta ertainei zerbitzuak ematea.
- b) Bezeroei zerbitzuak ematea.
- c) Enpresa-antolamendua bultzatzeko eta garatzeko plana.

2) Merkataritza jarduketarako programak (PAC):

- a) Aholkularitza tekniko-komertziala.
- b) Merkataritza dinamizatzeko kanpainak antolatzea:
  - b.1) Salmentak sustatzeko kanpaina espezifikoak.
  - b.2) Merkataritza sustatzeko beste kanpaina batzuk.
  - b.3) Udal-merkatuek egindako beste ekitaldi batzuk.
  - b.4) Zuzeneko marketina.
  - b.5) Informazio-, komunikazio- eta marketin digitaleko ekintzak.

3) Elkartegintza sustatzea.

Hurrengo taulan adierazten dira deialdi hori azken urteetan onetsi, argitaratu, eman eta ordaintzeko datak. Jakinarazi behar da ordaintza-data ez datorrela bat espediente guztietan, elkarten eta kolektiboen justifikazioak iritsi ahala banakako ebaluazio bidez ebazten delako, baliozkotasuna egiaztatzen delako eta, hala badagokio, egin beharreko zuzenketak jasotzen direlako.

URTEA	Ebazpenaren onespena	NAOn argitaratzea	Ematea	Amaierako ordainketa
2015	10E/2015 Foru Agindua, otsailaren 19koa	2015/03/13	245E/2015 Ebazpena, 2015/12/29koa. Ematea + ordainketa partziala	2016ko lehen hiruhilekoa
2016	114/2016 Ebazpena, maiatzaren 27koa	2016/06/14	562E/2016 Ebazpena, azaroaren 25koa:	2017ko lehen hiruhilekoa
2017	386E/2017 Ebazpena, ekainaren 8koa	2017/06/23	690E/2017 Ebazpena, urriaren 25koa. Ematea + alde zuzeneko ordainketa partziala	2017ko abendua-2018ko urtarrila
2018	297E/2018 Ebazpena, maiatzaren 11koa	2018/06/04	592E/2018 Ebazpena, urriaren 26koa. Ematea + alde zuzeneko ordainketa partziala	2018ko abendua - 2018ko urtarrila
2019	214E/2019 Ebazpena, maiatzaren 23koa	2019/06/13	152E/2019 Ebazpena, urriaren 17koa 154E/2019 Ebazpena, urriaren 24koa (ordainketa partziala)	2019ko abendua - 2020ko urtarrila
2020	Egin gabe dago. Ekainaren 20a baino lehen egitea aurreikusita da	Uztailaren 1. hamabostaldian egitea aurreikusita da	2020ko urrian egitea aurreikusita dago	2020ko abendurako edo 2021eko urtarrilerako aurreikusita dago

Gaur egungo egoerak eta COVID-19aren pandemiari aurre egiteko dekretatutako alarma-egoeratik eratorritako administrazio-epaiek gelditzeak eragina izan dute Turismoa eta Merkataritza Antolatze eta Sustatzeko Zerbitzuaren jardueran. Jakinarazi behar da Zerbitzuko langile askok maiatzaren lehen astera arte jardun dutela Lan Zerbitzuko langile laguntzaile gisa ABEEak ebazten.

Deialdia onartzeko hasierako aurreikuspenak 2020an izapidetzea aurreikusten zuen, aurreko urteetan baino nabarmen goizago. Izan ere, deialdia prest zegoen, administrazio-egintzak geldiarazi ziren unean nahitaezko txosten juridikoak eta esku hartzeko txostenak falta baitziren.

Gaur egungo salbuespen-egoerak direla eta, atzerapenez onartu eta argitaratu dira. Hala ere, horri esker, zenbait aldaketa egin ahal izan dira deialdia egungo egoerara egokitzeko eta deialdian

kontzeptu berri bat jasotzeko, zeinaren bidez merkatarien elkarten aholkularitza-lanerako laguntzen intentsitatea handitu nahi baita.

Une honetan, 2020ko deialdiaren oinarri arautzaileak amaitzen ari dira, eta ekainaren amaieran onartzea aurreikusten da. Gainera, Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzua bere jarduerara eta bere langileen egutegia berrantolatzen ari da, laguntzak emateko eta ordaintzeko datak aurreko urteetako oso desberdinak izan ez daitezzen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko ekainaren 12an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Manu Ayerdi Olaiola

## Galdera, Petilla Aragoiko osasun egoerari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Petilla Aragoiko osasun egoerari buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Ekainaren 18a. EH-Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-20-PES-00078 galdera idatzia aurkeztu du, zeinaren bidez jakin nahi baitu “zer osasungintza-egoeratan geratzen da Petilla Aragoi eta zein den Nafarroako Gobernuak horri buruz egiten duen balorazioa”. Honako hau da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak emateko duen informazioa:

Petilla Aragoiren egoera berezia izan da, Zaragozako probintzian kokatuta dagoelako, nahiz eta instituzionalki Nafarroaren mendekoa izan. Hala ere, hori ez da izan, ez Covid-aren aurretik, ez ondoren, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko erakundeek bertako egoerari halako moduz erantzutea non biztanleek hutsuneak pairatuko zituzten.

Osasun-arreta arrunteko sistemaren azpian dagoen filosofia bera da, zeina gero, alerta-egoeraren salbuespenezko egoerara eraman baita.

Jakina denez, Petillako populazioa Zangozako osasun eskualde oinarritzakoa da (horri dagozkio norbanakoaren osasun txartelak), baina, ondorio praktikoetarako, eta Aragoiko Gobernuarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmen bati esker, pertsona horiei Sos de Rey Catolico osasun-etxean ermaten die osasun-laguntza Nabardungo udalerrira joan ohi den lantalde berak. Probetako batzuk Zangozan ere egiten zaizkie.

Horregatik, osasun-arreta bermatuta egon da, dago eta egongo da, deseskalatze-prozesuaren bilakaera zein del alde batera utzita.

Egia da, ordea, alarma-egoerak inguruabar konplexua eragin ahal izan zuela, administrazioari eta mugikortasunari dagokionez, baina konponbide nahiko ona eman zaio. Alarma-egoera luza-tzen duen maiatzaren 8ko 514/2020 Errege Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrak honako hau adierazten zuen: “COVID-19ak eragindako osasun-larrialdian, eta horren ondorioetarako, enklabeak osatzen dituzten udalerriek haiek inguratzen duen probintziaren berezko tratamendua jasoko dute, probintzia hori beste autonomia-erkidego batekoa bada ere”. Aurrekoarekin bat, eta mugikortasunari dagokionez, Petilla Aragoiko biztanleria Zaragozako probintziaz ibil daiteke deseskalatze-prozesuaren ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe lurralde nazionalako beste leku batera –Nafarroara ere bai, beraz– joatea justifikatzen duten salbuespenak, honako arrazoi hauengatik: osasun-, lan- edo enpresa-arrazoiak; familia-bizilekura itzultzea; adinekoen, mendekoen edo desgaitasuna duten pertsonen laguntza eta zaintza; ezinbesteko kasu bat edo premia-egoera, edo antzeko beste edozein egoera.

Gerta zitekeen arazo bakarra izango zen etorkizunean bi lurralde-erakundeak egoera edo fase desberdinetan egotea, baina ez dirudi halakorik gertatuko denik, eta hala balitz ere konponbidea Aragoiko eta Nafarroako gobernuen eta udalaren arteko kontaktuekin emango litzaioke, une horretan indarrean dagoen estatuko araudia kontuan hartuta eta biztanleengan pentsatuta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Ordu-na

## **Galdera, eten digitalaren arazoa konpontzeko aurreikuspenari eta epeei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eten digitalaren arazoa konpontzeko aurreikuspenari eta epeei buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Laura Aznal Sagasti andreak eten digitalaren arazoa konpontzeko aurreikuspenari eta epeei buruzko galdera aurkeztu du (10-20/PES-00079), idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernu Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernu –zehazki, Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusia– lanean ari da herritarrek pairatzen duten eten digitala zertan den aztertzen, eten digitalari alderdi guztietatik aurre egiteko. Eten digitalak –zeinaren atzean hainbat arrazoi baitaude– gizarte desberdintasuna eragiten du; hortaz, hori da zuzendaritza nagusi honen helburuetako bat, eta horretan ari gara lanean.

Alderdi geografikoa da, galderan adierazten denez, kontuan hartu beharreko osagaietako, Interneteko sarbideari eta zerbitzu digitalei eragiten dien neurrian. Une honetan, Nafarroako Gobernu lanean ari da egoeraren diagnostiko bat egiteko; horren arabera, 687 populazio-entitate bakan daude gaur egun (170 udaletan) oraindik ez daukatenak banda zabaleko zerbitzuetarako sarbiderik, zerbitzu horiek horiek NGA (New Generation Access) zerbitzu gisa hartuta. Populazio-entitate bakan horietan 51.640 pertsona bizi dira guztira (biztanleria osoaren % 7,9).

Arazo hori konpontzeko, Nafarroako Gobernu banda zabalaren II. plan zuzendaria ari da prestatzen, aurreikuspenen arabera irailaren amaiera alderako prest egonen dena, non bereziki bilatuko baita oraindik ere halakorik ez duten herritarrek NGA zerbitzuetarako sarbidea izan dezaten. Helburu hori lortzeko neurri zehatzak taxutzeko fase-

an gaude orain, eta oraindik ez da erabaki neurri horiek zer epetan bete beharko diren; beraz, ezin dugu helburua lortzeko eperik aurreratu.

Analisi hori orobat ari da egiten Interneten segurtasunez eta trebetasunez aritu ahal izateko baliabiderik edo ezagutzarik ez izateagatik sarbide-etenaren ikuspegitik; eta kontuan hartzen ari da, halaber, belaunaldi-jauzia edo jabetze-etena, gazteen kasuan. Hezkuntzaren arloan baliabiderik ez izate hori gainditzeko, Hezkuntza Departamentuak zenbait ekintza abiarazi ditu ikasle sarbide-etena arintzeko xedez eta eten horrek populazio-talde kaltetuenetan duen inpaktua minimizatzeko xedez; halatan, egoeraren analisi bat egin da (ikasgelaren nahiz ikasle bakoitzaren mailan) tutoreen bidez, lehentasuna emanez hasiera batean DBHko 4. mailari, Batxilergoko 2. mailari, LHko 2. mailari eta Lehen Hezkuntzako 6. mailari. Prozesu osoan zehar, Hezkuntza Departamentuak eta Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusiak konexio digitalik ez zeukaten ikasle eskura jarri dituzte ikaste-txetako zuzkidura-ekipoak, 2.000 ekipo informatiko baino gehiago (Chromebook-ak, ordenagailu eramangarriak nahiz tabletak), konektibitate-kitak eta 1.000 SIM-txartel inguru, baliabiderik gabeko ikasleak Internetera konektatzea errazteko. Inkestak egin dira familien beharrezkoak identifikatzeko, eta une honetan lanean ari gara heldu den ikasurtearen hasierarako beharrezkoa den ekipamendua bermatzeko. Prozesu honetan, ikasleengan, irakasleengan eta familiengan gaitasun digitaleko eten bat identifikatu da, eta hurrengo hilabeteotan horri konponbide emateko egingen dugu lan; hizkuntza ez jakiteak ere (hizkuntza-etena) egoera are zailagoa izatea eragiten du zenbaitetan.

Ezagutzarik ez izatearen ikuspuntutik, eta hezkuntzaren esparruaz harago, egoeraren analisia egiten ari gara, Gobernu beste departamentu batzuekin lankidetzan –bereziki, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta Hezkuntza Departamentuarekin– erabilera- nahiz jabetze-eten digitala identifikatzeko. Lankidetzan horren ondorioz, Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusia prestakuntza-ekintzak eta gaitasun digitalak zabaltzeko ekintzak taxutzen ari da, zeinen bidez bereziki bilatzen baita hainbat arazoirengatik eten digitala (sozialak, ekonomikoak, adinari nahiz generoari lotutakoak) borrokatzea eta beste departamentu batzuek abiarazitako ekintzek har-

tzen ez dituzten eremu geografikoetan jardutea, horiei mundu digitalerako sarbidea erraztearren. Plan hori urrirako egonen da prest, eta bertan 2020rako eta 2021erako prestakuntza-ekintzak planteatuko ditu hasiera batean. Halaber, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan ari gara, toki entitateen osoko bilkura telematikoak kudeatzeko eta garatzeko tresnak identifikatzearen. Izan ere, pandemia baino lehen, dauden tresna ezberdinak aztertu ziren, araudiari jarraikiz toki entitateek herritarrekiko arreta modu telematikoan egiteari begira dauzkaten betebeharrak bete ahal izan ditzaten. Halaber, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia deialdi bat prestatzen ari da, Administrazio Elektronikoa ezartzeagatik toki entitateek 2020an zehar egindako gastuak diruz laguntzeko.

Halaber, herritarrei administrazioarako sarbide elektronikoa errazteko, komunikazio eta prestakuntza plan bat taxutzen ari gara, halako moduan non interesa duten pertsona guztiek lortu ahal izanen baitute cl@ve egiaztagiria, hori baita identifikazio-sistema bakarra, bakuna eta segurua, sistema hori ezarria duten administrazioetan (une honetan, Estatuko Administrazioan, Nafarroako Gobernuan) izapideak modu telematikoan egin ahal izateko; Nafarroako udaletan, berriz, sistema

ezartzen ari dira. Gainera, herritarrek kontsulta espezializatuak egiteko eta herritarrei izapideak egiten laguntzeko bideokonferentzia bidezko arreta-lerro bat prestatzen ari gara. Azkenik, eta izapidetzea ahal den jende gehienari errazteko, azterten ari gara ea kode biometriko berri bat jartzeko aukerarik dagoen, segurtasun-betekizun guztiak betetzen dituen eta nahi duten herritarren eskura egonen dena (betiere, beste alternatiba batzuk eskainiz); hartara, identifikazio-moduak handitzea lortuko dugu eta zeharo erraztuko dugu administrazioarako sarbidea, Nafarroako Gobernuaren egoitza batean bertaratu behar izanik gabe.

Aipatutako lan horiek ari gara une honetan garatzen, eta horregatik daude bakoitza exekuzio-fase batean eta horregatik dauka bakoitzak egiteko eta abian jartzeko epe bat. Batzuk epe labur eta ertainean bukatuko dira, eta beste batzuk legegintzaldian zehar garatuko dira.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020eko ekainaren 5ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digtaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

## **Galdera, kulturaren eta kirolaren sektoreko autonomoentzako laguntzei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kulturaren eta kirolaren sektoreko autonomoentzako laguntzei buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du kulturako eta kiroleko sek-

toreari lotutako autonomoentzako laguntzen zenbatekoa 2 milioi eurokoa izanen dela kalkulatzeko oinarrian dauden datuei buruz (10-20/PES-00082). Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariaren erantzuna:

Kalkulu hori bi datutan oinarrituta egin da: Nafarroan eremu horiei lotutako autonomoen kopurua eta laguntzen zenbatekoa.

Lehen hiruhilekoan, kulturarekin eta kirolarekin lotura duten ataletako batean erregistratutako 1.500 autonomo inguru zenbatu dira.

Nafarroako Gobernuak autonomoentzat bul-tzatutako laguntzen zenbatekoa apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretuan (koronabirusaren osasun-krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onartzen dituen) jasota dago.

Arloko organo eskudunak langile autonomo bati aitortu dionean jardunari uzteagatiko prestazio berezia, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurri bereziei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 17. artikuluan zehazten dena, langile autonomoak eskubidea izanen du 2.200 euroko laguntza zuzen eta berezia jasotzeko.

Langile autonomo batek heldu ez dionean jardunari uzteagatiko prestazio bereziari, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 17. artikuluan zehaztutakoari, eskubidea izanen du 700 euroko laguntza zuzena jasotzeko. Laguntza hori

800 euroraino igo ahalko da, baldin eta fakturazioaren ehuneko 30eko gutxitzea gertatzen bada.

Zuzeneko laguntzak eskuratzeko baldintzak aipatutako 3/2020 Foru Lege-dekretuan zehazten dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko ekainaren 9an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## Galdera, NICDO enpresari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, NICDO enpresari buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du COVID-19aren krisiak NICDO enpresaren aurreikuspen ekonomikoetan izanen izanen duen eraginari buruz (10-20/PES-

00083). Hona Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariaren erantzuna:

NICDO enpresa publikoari buruzko zenbatespen hauek darabiltzagu gaur egun (2020ko irailaren 1era arteko zenbatespena):

– Diru-sarrerak 2 milioi euro murriztuko dira (10,3 milioitik 8,3 milioira)

– Ebitda 780.000 euro jaitsiko da.

– Autofinantzaketaren ratio globala ehuneko bederatzi jaitsiko da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko ekainaren 9an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.**

### **Lanpostuen adjudikazioa eta izendapen proposamena**

Bukatu da Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts betetzeko lekualdatze lehiaketa. Deialdia Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2020ko otsailaren 11ko Ebazpenaren bidez onetsi zen, eta 2020ko otsailaren 27ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta data bereko 40. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Ikusita lehiaketa gainditu duten izangaiak erdietsitako puntuazioak, 2020ko uztailaren 27an kalifikazio epaimahaiak igorritako zerrendaren arabera ordenatuta, eta deialdiko 8. oinarriaren 3. atalean ezarritakoarekin bat, lehendakari honek, bere ahalmen eta eskumenak erabiliz,

#### **EBAZTEN DU:**

**Lehena.** M<sup>a</sup> Dolores García Fuentes eta Mercedes Hernández Asirón andreei esleitzea deitutako lanpostu hutsak eta Nafarroako Kontuen

Ganberarako funtzionario izendatzea, deitutako lekualdatze lehiaketan puntu gehien lortu duten hautagaiak izan baitira.

**Bigarrena.** Ezartzea interesdunek, deialdiko 9. oinarriaren 1. atalean xedatutakoarekin bat, 10 egun naturaleko epea izanen dutela, izendapen-ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aitzina, karguaren jabetza hartzeko. Jabetza adierazitako epean hartzen ez badute, lehiaketako jardunetik sortutako eskubideei uko egiten dietela ulertuko da.

**Hirugarrena.** Agintzea izendapen-ebazpen hau argitara dadila Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta interesdunei jakinaraz dakiela.

Iruñean, 2020ko uztailaren 28an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**7/2020 Foru Lege-dekretua, uztailaren 22koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.**

*OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko uztailaren 30ean egindako bileran, baliozkotu zuen 7/2020 Foru Lege-dekretua, uztailaren 22koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren, eta erabaki zuen presako prozeduraz foru lege proiektu gisa izapidetzea. Foru Lege-dekretua 2020ko uztailaren 23ko 163. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2020ko uztailaren 28ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 161.6. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki horiek argitara daitezen agintzen dut.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 4an

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya



